



Adam Ondra

Eskalatzailea

Grabitatearekin jolasean

Adam Ondra txekiarrek 8a bide bat kateatu du, 9 urterekin; Sean McColl kanadarrak 8c bat, 13 urterekin

Andoni Urbistondo

Isaac Newtonek XVII. mendean azaldu zuen zergatik erortzen den lurrera, airean den gorputz bat, masa bat. Grabitatearen legea asmatu zuen. Orduz geroztik, jakin badakigu, gutxi-asko, sagar bat zergatik erortzen den, edo gizakiok zergatik ez garen airean egoten. Grabitatearen legeak pisua duten masa guztietan du eragina, baina Adam Ondra txekiarrek eta Sean McColl kanadarrak kolokan jarri dute baieztapen hori. Esan daiteke grabitatearen legeak eurenengan ez duela besteengan duen eragin bera. Newtonek burua altxako balu, aho bete hortz geratuko litzateke bi gazteen balentriekin.


Harkaitzari eutsita aritzen dira euren zaletasun gustukoenean, eskalatzen, eusteko heldulekuak txikienetan txikiak izan arren. Egin kontu bestela zer lortu duten. Ondrak bederatzi urte ditu, baina 8a zailtasuneko bide bat kateatu du. Sean McColl ez da hain gaztea. 13 urte ditu, eta 8c zailtasuneko bidea kateatu du. Munduko eskalatzaile zaildu eta onenek lortutako zailtasunaren pauso bira (20 in-

guruk lortu dute 9a zailtasuna poltsikora-tzea), pauso bi horiek lortzea guztietan zailenak badira ere. Esan beharrik ere ez, tamaina horretako lorpena erdiesten duten inoizko kirolari gazteenak direla.

Euskal Herriko hainbat eskalada horma eta guneeetan, maila handiko eskalatzaileek jarduten dute harkaitzarekin lehia bizian, ezinezkoa dirudien lekuan heldulekua bilatuta, ezinezkoa dena errealitate eginda. Usu ikusten dira 16-18 urteko gazteak zortzigarren graduarekin jolasean, baina adin horretatik behera ez.

Nahikoa da norberak 13 edo 9 urte zituela egiten duen jardunean pentsatzea. Ikasten gehientsuenak, jolasean beste batzuk, baina inor gutxi horma tente batean zintzilikatu eta zailtasun goreneko bideak kateatzen.

Adam Ondra 1,32 da luze, eta 39 kilo pisatzen ditu. Harkaitzean gora egiteko arintasuna kontu erabakigarria bada, Ondra, arinetan arinena da. Iaz, zortzi urte zituela, 7b+ zailtasuneko lau bide eta 7bko beste hiru kateatu zituen, guztiak bistan, alegia, saiatu zen lehenengo aldian. Konforme ez eta, udaldiko opo-



rretan, buru-belarri ahalegindu zen bere maila hobetzen, Italiako zenbait eskalada guneeetan. Eskolako lagunak futbole- an edo *play-station* makinatxoarekin ari ziren bitartean, Ondra, horman gora eta behera; jolasean, hala ere. Ahalegina emankorra izan zen edo ez, zalantzarik ez dago: 7c zailtasuneko bost bide gainditu zituen eta 7c+ zailtasuneko beste bi bide; lehenengoak bistan, eta azken bi hauek mugimenduak aurrez aztertuta.

Bere bilakaerarekin gustura zegoen Ondra, eta, etxera bueltan, Eslovenian, Misja Pec eta Osp herriko eskalada eskolatan geldialdixoa egin zuen. Gradua gainditu gabe, goranzko beste pauso bat eman zuen: 7c+ zailtasuneko bide bat kateatu zuen, bistan, lehen aldiz. Zortzigarren gradua gertu-gertu zuen Ondrak; denbora kontua zen. Paklenica eskolako *Funky Shit* bidean ahalegindu zen. Lehenengoan, kale egin zuen, baina, bigarren-ean, bidea kateatu. Ikusgarria.

Sean McCollek 8c zailtasuna gainditu du 13 urterekin

Sean McColl kanadarra helduagoa da. 13 urte ditu, baina bere maila Ondrarena baino handiagoa da, gainditutako zailtasuna aintzat hartuta. Orain aste batzuk, 8c+ zailtasuneko bide bat kateatu zuen Kanadan, Cheakamus Canyon hormako *Captain America* bidean. Lau ahalegin egin zituen bi egunetan. 10 urte zituela ekin zion eskaladari McCollek, eta, bi urtetan, 8b+ zailtasuna gainditu zuen (*Pulse* bidea, Cheakamus Canyonen hau ere). McCollek oso gustuko ditu eskalada txar-



pelketak, eta, oraindino lortutako emaitzak gogoan —gazte mailako Munduko Txapelketa lortu du, aurrean, Canteleun (Frantzia)—, bide horretan jarraitzeko asmoa du.

Adam Ondra eta Sean McColl. Bi haur, bi gazte, munduko eskaladako arreta gunee bilakatu dira. Ondo bidean, bide luze bateko hasiera baino ez dira euren lorpenak. Etorkizunean ere hizpide izango da, sarri, bi eskalatzaileon bilakaera. Josune Bereziartu, 9a zailtasuneko bide bat kateatu berrian, zuhur mintzatu zen eskaladako etorkizunari buruz, zailtasun handiagoei ekiteko aukeraz galdetuta. Eskalatzaile asko daude 9a zailtasun mitiko hori gainditzeko prest, baina gutxi izanen dute Sean McCollek eta Adam Ondrak bezainbeste tarte, 9a zailtasuna mugarri iraunkorra ala bitarteko soila izango den erabakitzeke.



Adam Ondra txekiarra (erdikoa), bere herrian irabazitako txapelketa batean.